

Oinordetzan



ULA IRURETAGOIENA

Asteburu luze bat. Ingurutik buelta-txo bat eman eta pikoteoa egiteko probestu dugu. Turistak *selfie*-ak egiten. Turistentzako bideak, alokairuak, dendak, hotelak, aparkalekuak, menuko platerak, seinaleen kartelak munduko hizkuntza orotan. Turistak ohiko lekuak leku arrotz bilakatzen. Jada, paseoa, ez da gauza bera. Marmarreko madarika-zioan, gu: turismoa animalia basati moduan ari da gure hiri, herri eta lurraldeak eraldatzen eta pikoteoaren prezioa modu artifizialean igotzen. Alkatea, politikariak, enpresariak ari dira hiri-estrategia bultzatzen, diseinatzen, eraikitzen.

Oinordetzan jaso dugu aitonaren pisu bat. Ez da oso handia, baina neurri duina du. Paseoaren aurrealdeari ematen dio fatxada, garai bateko historia urbanoaren parte da. Aitonaren etxe-blokean jende gutxi bizi da dagoeneko, turistentzako alokairuko etxe bihurtu dira gehienak. Etxe-eraikinak interes arkitektoniko ertainekoa du baina ingurunea atondu du udalak, aitona pisua erosi zuen garaitik oso eraldatua dago, eta leku *chick* bat da kanpotarraren begiradapean. Bizilagunen alokairu prezioak bilatu ditugu ostatu zerbitzua iragartzen duen web orrialdean. Harrituta begiratu diogu dirukantitateari. Aitona jakingo balu. Baina bizilagunek diote aise alokatzen dutela, eskaera handia dagoela, hilabetero edo asteburu luzeetarako balio lezakeela. Dena saltzen omen da. Aitonaren pisuak hilero eman diezagukeen diru-sarrera gehigarriarekin gure etxeko ekonomian lasaia ibiltzeko aukera emango liguke. Ongi kudeatuta, diru poltsa bat egin dezakegu aitonaren pisuarekin eta gure seme-alaben etorkizuneko unibertsitate aukerak zabaltzeko aukera emango liguke.

Ez da gurea espekulazio hutsa, ez da gurea enpresa basatien parekoa. Gurea biharko hemengo belaunaldietarako erabiliko dugu, bizi-proiektu lokal bat du atzetik, diogu, gure balore-sistema konbentzitu nahian. Bizilagunen errendimendu berdina izateko bakarrik, ez gehiago. Etxea hutsik egon beharrean. Aukera paregabea. ●

Zer irabazi dugu Errejónek?

LEIRE ARTOLA ARIN

Urriaren 24tik Espainiako Estatuko hedabide guztietako lerroburuak eman dizkionte Iñigo Errejóni, eta maiztu arte erabili dute haren izena, ezker-eskuin. Gutxitan ikusten den zarata mediatikoa lortu du, eta badirudi oihartzunak luze jarraituko duela. Orain matxismoari buruz denek omen dugu esatekorik.

Sare sozialetan eufemismoz eta ardurarik ezaz beteriko gutun bat argitaratuta aurkeztu zuen dimisioa Errejónek. Ez zuen aitortu bere erabakia sexu erasoak leporatu zizkioteko zetorrenik; aldiz, ziurtatu zuen politika instituzionalaren “exijentziak” atzean uzteko beharra zuela, akonpainamendu psikologikoko prozesu pertsonala gartzeko. Hitz ponposoak erabilia, botereak eta famak gainezka egin ziotela zioen –hain zuzen, horixe da auziaren gako nagusietako bat: boterean eta boteretik erabiltzen den indarkeria–. Orditik, zurrumbilo amaigabea sartu da eztabaida, baina mezu argi bat nagusitu da hedabide konbentzionaletan: feminismoak irabazi duela.

Zer, ordea? Zer irabazi du feminismoak? Errejón munstro gisa erakustea eta, lehen lerrotik ez ezik, jendartetik ere baztertea? Heteropatriarkatu erraldoi honetan gizon matxista bat seinalatu eta “merezitakoa ematea”? Ezkerrean ere –sorpresa!– indarkeria matxista dagoela azaleratzea? Batzuek ospatu dute hedabide konbentzionaletan diskurtso feminista txertatu izana. Hortxe dago tranpa: feminismoz mozorrotutako diskurtso interesatuak hedatzen ari dira egunotan, emakumei eta biktimei nola jokatu behar duten azaltzen dietenak.

Feminismoa zerbait bada, ahalduntze eta liberazio mugimendua da, paternalismotik urrundu eta elkertasunean oinarritzen dena. Baina Errejónen kasuarekin kontzeptu batzuk lausotu direla dirudi. Eztabaidari argi apur bat emateko asmoz, iritzi nagusitik kanpo dagoen gogoeta plazaratu du Cantoneras kolektibo feministak, eta emakumeok biktima paperetik ateratzeko beharra aldarrikatu du: “Ez gara biktima babesgabeak harreman guztietan, egunotan ulertarazi nahi den moduan”. Emakumeon aurkako epai moralaz ari dira, besteak beste. *Salatu, epaitegietara jo, biktima zara, ez isildu, eraso egin zizun, erreparazioarako bide bakarra publiko egitea da*. Yolanda Díaz berak ere sustatu du mezu hori. Hori da feminismoaren lorpena? Sexu eraso beldur bizitzea da irabazi duguna? Kanpo epaien eta auzitegien mamurik gabe, norberak erabaki behar luke sexuan non dauden mugak, eta hala jakinarazi parekoari. Arazoa da gizonen oraindik ez dutela ikasi (nahi) muga horiek errespetatzen, eta boterea galtzea kosta egiten dela.

Feminismoz jantzitako epai moralak ematen ari diren tertuliakideez aparte, zorionez, zenbait autore ari dira zurrumbilotik atera eta ikuspegi eraikitzaileagoak eskaintzen, esaterako, Cxtx eta ElDiario.es bezalako hedabideetan. Euskal Herrira ekarri beharreko hausnarketak daude, zenbait dinamika aldatzeko abiapuntu izan litezkeenak. Adibidez, argigarria da Podemoseko kargudun ohiek diotena: indarkeria eta bertikaltasuna alderdiaren sorreratik egon direla. Galdera potolo ugari utzi dizkigute kazetari eta analista batzuek, botereari, ezkerreko indarkeriari eta sexuari buruzkoak. Askoz interesgarriagoa da horri heltzea, Errejónek zer nolako sexu indarkeria erabili duen xehe-xehe eta morboz josita aztertzea baino.

Gizon boteredun horren aurka epaitegiek ebazten dutena ebazten dutela ere, esan gabe doa ezin dela zalantzan ipini biktimek salatutakoa, eta erabat gaitzesgarria dela indarkeria matxista oro; are gehiago, botere posiziotik egindakoa.

Feministok ez dugu ezer berezirik irabazi Errejón auziarekin. Feministok jarraitzen dugu beti bezala gogoetatzen eta eztabaidatzen gertuko sareetan, faxisten atzaparretatik libre dauden giza sareetan. Agian, asteotan burutik baino gehiago tripatik hitz egingo dugu, Errejónek oroitarazi digulako harreman toxiko hura, indarkeria matxistatik herriko eragilean ireki genuen prozesu neketsu hura, irakasle aurrerakoi hark bulegoan esan zigun hura, edo kuadrilla guztiak babestu zuen baboso ezkertiar hura. Jada ez gaitu ezerk harritzen. ●